

## FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure proiektua aurrera ateratzeko funtsezko jarduerak ondokoak dira:

1. Lehengaiaren horniketa: Gure plakak ekoizteko pneumatiko zaharren kautxu birziklatua behar dugu. Beraz, kautxu birziklatuaren edo gurpil zaharren hornitzaile bat aurkitu behar dugu. Bigarren kasu horretan, birrintzeko makinak erabiliko ditugu.
2. Bigarrenik, bi makina behar ditugu plakak ekoizteko:  
Birrintzeko makina bat, neumatikoetatik kautxua lortzeko. Gainera, makina bat beharko dugu plaka horiek sortzeko.
3. Plakak ekoiztea ere garrantzitsuenetarikoa da,
4. Logistikaz arduratuko den enpresa bat aurkitu behar dugu, denbora laburragoan bidalketa azkar eta seguruak egin ahal izateko, sarrera eta irteera guztiak kontrolpean izateko eta uneoro zenbat plaka ditugun stockean jakiteko.
5. Webgunearen diseinua eta mantentzea ere beharrezkoa da, kontsumitzailearekin komunikatzeko eta bezeroen harremanetarako dugun tresnarik garrantzitsuena delako.
6. Bezeroak eta salmentak lortzeko sare sozialak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, kontsumitzailea hurbil egoteko eta kontaktu pertsonala izateko.
7. Azkenik, bezeroari arreta emateko zerbitzu bat ere behar dugu, fabrikazioan egon daitezkeen akatsak konpondu ahal izateko, bidalketa egiteko. Gainera, zerbitzu honen bidez kalitate- eta gogobetetze-testak egin ahal izango ditugu, eta ingeniari gisa ohiko bezeroekin harremanetan egon ahal izango gara... Azkenik, aholkularitza lanak ere egin behar ditugu, bezero bakoitzarentzat onenak diren produktuak eta kantitatea aukeratzen laguntzeko.